



**GALDAKAOKO IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO
EKINTZA PLANA:
GALDAKAOKO TOKIKO AGENDA 21 EKINTZA
PLANEKO BERRIKUSPENA**



2 Dokumentua. Ekintza eta Jarraipen Planak

Dokumentuaren izenburua:	GALDAKAOKO TOKIKO AGENDA 21 2 Dokumentua. Ekintza eta Jarraipen Planak
Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal laguntza teknikoa:	UTE Ondoan, S.Coop. Haizea Ikerketa S.L.
Hartzailea:	Galdakaoko Udala
Udal parte-hartzaileak:	Arakaldoko Udala Arrankudiagako Udala Arrigorriaga Udala Etxebarriko Udala Galdakaoko Udala Urduñako Udala Orozkoko Udala Ugao-Miraballeseko Udala Zaratamoko Udala Zeberioiko Udala
Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoa	Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal
Orriak:	24
Hizkuntza:	Euskara
Bertsioa:	Behin betikoa
Entrega data:	2013ko otsaila



AURKIBIDEA

TOKIKO EKINTZA PLANA.....	5
1. Sarrera.....	5
2. Ekintza Planaren xedea.....	5
3. Aalborg + 10 konpromisoak	5
4. Tokiko Ekintza Planaren formulazio elementuak	6
5. Tokiko Ekintza Planaren gauzaper prozesua	8
6. Ikuspegia	10
7. Helmugak.....	10
8. Lerro estrategiko, programa eta ekintzak	12
JARRAIPEN PLANA	20
1. Jarraipen Planaren Xedea	20
2. Jarraipen Planeko Operazioak.....	20
3. MUGI 21 Planaren kudeaketan tresna lagungarri moduan	23
4. Nork hartzen du parte Planaren kudeaketan?.....	23
5. Jarraipenerako Ereduaren proposamena.....	24

TOKIKO EKINTZA PLANA

1. Sarrera

Tokiko Ekintza Plana, Tokiko Agenda 21en oinarritzko elementua, Galdakaoko udalerririk **iraunkortasunarekiko duen estrategia eta konpromisoa da.**

Ekintzak gauzatzuz udalerriko eta eskualdeko **ingurumen, gizarte eta ekonomia arloko erronkei erantzutea** da bere helburua.

Planaren iraunaldia 8 urtekoa da. Honela, epe labur, ertain eta luzera begira ekintzen garapen eta exekuzioko epealdi errealetara egokitzen den plangintzarako tresna izango da.

2. Ekintza Planaren xedea

Tokiko Ekintza Plana egitearen xedeak ondorengoak dira:

- Udalak Tokiko Iraunkortasunaren alde lan egiten jarraitzeko bere gain hartu duen konpromisoari erantzun.
- Biztanleria erabakitze-prozesuetan barneratu eta kultura parte-hartzailea handitu.
- Planifikaziorako tresna izan, etorkizuneko ekintzak modu ordenatuan programatzeko.
- Diseinua egin ostean, kudeaketarako eta ebaluaketarako tresna izan, urteroko aurrekontuei lotuz.
- Udalaz gaindiko finantzaketa iturriak jasotzea erraztu.

3. Aalborg + 10 konpromisoak


Aalborg+ 10 konpromisoak Ekintza Plana formulatzerako garaian **oinarritzko erreferentzia-esparrua** da.

1. **Gobernantza moduak:** erabakiak hartzeko prozedurak demokrazia esku-hartzaileago baten bidez bultzatu.
2. **Iraunkortasunaren aldeko Udal kudeaketa:** udal-kudeaketarako programa eraginkorrak prestatu, diseinutik hasi eta ebaluazio eta ezartze fasera arte.
3. **Natur ondasun komunak:** natur ondasun komunak erabiltzeko aukera berak izan ditzagun zaindu, babestu eta bermatu.

4. **Kontsumo eta bizimodu arduratsuak:** baliabideak tentuz eta modu eraginkorrean erabiltzea erraztu eta kontsumo eta ekoizpen iraunkorrak bultzatu.
5. **Hirigintza diseinatzea eta planifikatzea:** hirigintza diseinatzen eta planifikatzen eginkizun estrategikoa izan eta ingurumen, gizarte, ekonomia, osasun eta kultur gaiak guztion onerako bideratu.
6. **Mugikortasuna hobetzea eta zirkulazioa murriztea:** garraioa, osasuna eta ingurumena bata bestearen menpe dagoela onartu, eta mugikortasun iraunkorreko ereduak irmotasunez sustatzeko konpromisoa hartu.
7. **Osasunaren aldeko tokiko ekintza:** herritarren osasuna eta ongizatea zaindu eta areagotu.
8. **Tokiko ekonomia bizia eta iraunkorra:** ingurumenean kalterik egin gabe enplegua sor dezan tokiko ekonomia bizia sortu eta bermatu.
9. **Berdintasuna eta justizia soziala:** komunitate integratzaileak eta solidarioak bermatu.
10. **Tokian tokitik mundu globalera:** bakea, justizia, berdintasuna, garapen iraunkorra eta klima babestearen erantzukizun globala gure gain hartu.

4. Tokiko Ekintza Planaren formulazio elementuak

Ekintza Planaren gauzapenak honako elementuak biltzen ditu:



Iturria: Norberak egina EAEko udalerrietan Tokiko Agenda 21 Ekintza Planak berrikusteko Gida Metodologikoan oinarrituta

5. Tokiko Ekintza Planaren gauzapean prozesua

5.1. Eragile inplikatuak

Tokiko Ekintza Planaren gauzapenean honako eragile eta organoek hartu dute parte:

- **Lan teknikoak:** Aholkulari Taldeak, proiektuko Zuzendaritza politiko eta Teknikoarekin elkarlanean eta teknikarien partaidetzarekin garatua.
- **BARNE koordinazio eta partaidetza lanak:** Bakarkako elkarrizketen bitartez teknikariekin eta arduradun politikoz osaturiko barne organoa den Hirigintzako Batzorde Informatiboaren talde lanaren bitartez
- **ESKUALDE mailako koordinazio eta partaidetza lanak:** eskualde mailako arduradun politiko eta teknikoez osatutako lan organoa den UDALTALDE 21 NERBIOI-IBAIZABAL KOMITEAREN bitartez.
- **HERRITARREN parte-hartze jarduerak:** interesdun giza eragileei egindako elkarrizketen bitartez, web galdetegiaren bitartez eta herritarren parte-hartze Foroen bitartez.

5.2. Metodologia

Lan programa **5 faseetan** banatu da:

1. Proiektuaren zehaztapena eta abian jartzea, prozesua aurkezteko eta koordinazio eta parte-hartze mekanismoak Tokiko Agenda 21 berrikuspen prozesuaren beharretara egokitzeko Udaletxe barruan eta kanpoan (herritarrak eta giza eta ekonomi eragileak) bilerak antolatzean datza.
2. Planaren formulazio estrategikoa, udalerriko ikuspegia zehaztuz Planaren ezarpena amaitzen denean lortu nahi diren helmugak ezarriz eta helburu estrategikoak, operatiboak eta ekintzak zehaztuz.
3. Ekintzen ezaugarritzea, Plana kudeaketarako benetako lanabesa izan dadin ekintzen definizio zehatz bat egitean datza.
4. Planaren jarraipena egiteko lanabesen diseinua eta jarraipena.
5. 2. Txostenaren idazketa: Tokiko Ekintza Plana eta Jarraipen Plana.

Tokiko Agenda 21 prozesuak, kontzeptuz eta filosofiaz, barne (Udaleko teknikari eta politikariz osatua) eta kanpo mailako (herriko sektore ezberdinez osatua) **parte-hartze prozesu baten bitartez lagundua egon behar du.**

Informazio eta motibaziorako euskarri moduan balioko duen **komunikazio estrategia** baten laguntza nahitaezkoa da herritarren kalitatezko parte-hartzea bermatzeko. Horretarako, unerik esanguratsuenetan Udaleko **ohiko komunikazio kanalak** erabili dira.

Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planaren formulazioan zehar, lehen aipaturiko fase ezberdinetan **barne eta kanpo parte-hartzea integratu eta artikulatu** da eta ekarpenak ondorengo dokumentuan txertatu dira.

Ondorengo taulan prozesuan zehar **garatutako parte-hartze jarduerak** deskribatzen dira.

BARNE PARTAIDETZA	HELBURUA / GARAPENA
Formulazio estrategikoa udal arduradunekin	Formulazio estrategikoa Tokiko Ekintza Planaren zirriborroaren diseinua
Tokiko Agenda 21aren diseinua udal teknikariek	Tokiko Agenda 21eko zirriborroari ekarpenak eta helburu eta ekintzen proposamena.
Hirigintzako batzorde informatiboarekin 1. bilera. Formulazio estrategikoa (2012/12/11)	Tokiko Agenda 21eko zirriborroaren kontrastea. Ekintzen balorazioa eta proposamenak eta lerro estrategikoak eta programen egokitzapena.
Ekintzen ezaugarritze lanak udal teknikariek	Tokiko Agenda 21eko eskeman zehaztutako ekintzen ezaugarritzea.
Hirigintzako batzorde informatiboarekin 2. bilera: Tokiko Agenda 21aren eskemaren balidazioa. (2013/01/22)	Tokiko Agenda 21eko eskemaren balidazioa, baita ekintzen deskripzioa, epeak eta hauek garatzeko arduradunak ere. Lehenetsuneko ekintzen proposamena.
Hirigintzako batzorde informatiboarekin 3. bilera: Azken dokumentuaren behin betiko onarpena. (2013/02/19)	Azken txostenaren aurkezpena eta onarpena
KANPO PARTAIDETZA	HELBURUA / GARAPENA
Herritarren parte hartze foroa. Tokiko Ekintza planera ekarpenak. (2012/12/12)	Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plan berria gauzatzeko herritarren ikuspuntu ezberdinak biltzen dira. Tokiko Agenda 21eko zirriborroaren lerro, programak eta ekintzen proposamena aurkezten da eta lehenetsuneko helburuak adosten dira.

ESKUALDE MAILAKO PARTAIDETZA	HELBURUA / GARAPENA
Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal Komitea	<p>Eskualde mailan 2 ekintza mota identifikatzen dira:</p> <p>a. Gauzapenerako eskumena eskualdeko Iraunkortasun Bulegoaren baitan daudenak.</p> <p>b. Etorkizun hurbil edota urrun batera begira eskualde mailan landuak izan daitezkeen ekintzak. Kasu honetan Nerbioi-Ibaizabal UT21 Komitea izango litzateke hauen gauzapenerako organo eskuduna.</p> <p>Udal guztiek babestutako ekintzak Tokiko Ekintza Planeko parte izatera pasatzen dira.</p>

Ezaugarritutako ekintzak biltzen dituen dokumentua Tokiko Ekintza Plana eta Jarraipen Planarekin batera formatu digitalean entregatzen dira.

6. Ikuspegia

Ondoren, Galdakao 2020 ikuspegia aurkezten da:

2020. urtean Galdakao gizartea kohesionatuta, berdintasunezkoa, solidarioa eta parte-hartzailea da, bertakoa izatearen eta nortasun zentzu handikoa. Pertsonak era iraunkorren eta giro seguru, osasuntsu eta euskaldunean beraien behar ekonomikoak, sozialak eta emozionalak asetzen dituzten ongizate maila oneko udalerrian.

7. Helburuak

Ondoren Galdakao 2020. urterako onartutako Helburuak aurkezten dira:

LE.1. IRAUNKORTASUN BALOREETAN OINARRITUTAKO INFORMAZIO, SENTSIBILIZAZIO ETA KOMUNIKAZIO IRISPENA SUSTATZEN DUEN ETA PARTE-HARTZEA ERRAZTEN DUEN UDAL KUDEALETA GARATU

HELBURUAK 2020. URTERA BEGIRA	ERLAZIONATURIKO ADIERAZLEA
Urtean 10 hezkuntza jarduera baino gehiagoko batz bestekoa lortu. (gaur egungo balorea 10)	Ingurumen hezkuntza jarduera kopurua/urteko
Urtean 15 parte-hartze bilera baino gehiagoko batz bestekoa lortu. (gaur egungo balorea 8)	Herritarren parte-hartze bilera kopurua/urteko

LE.2. ESPAZIOAREN ERABILERA BALIOAK ARRISKUAN JARRI GABE BULTZATUKO DUEN HALA LURRALDEAREN NOLA NATURAREN ORDENAZIO ZEIN KUDEAKETA GARATU

HELBURUAK 2020. URTERA BEGIRA	ERLAZIONATURIKO ADIERAZLEA
Etxebizitzarako lurzoruaren intentsitatea mantendu (Gaur egungo balorea 17.000 bizt/km ²)	Hiri etxebizitza lurzoruaren bizi diren biztanle kopurua/hiri etxebizitzarako lurzoruaren azalera (km ²)

LE.3. BIZTANLERIAREN BEHARRAK ASETUKO DITUEN MUGIKORTASUN ERAGINKOR, LEHIAKOR, BIDEZKO, OSASUNGARRI ETA ZIURRA GARATU

HELBURUAK 2020. URTEARI BEGIRA	ERLAZIONATURIKO ADIERAZLEA
Bidegorri sarea 10Km izatera iritsi. (Gaur egungo balorea 2,5Km.)	Bidegorri sareko Km kopurua

LE.4. BIZIMODU ARDURATSUAK SUSTATU ETA ONDASUN NATURAL KOMUNEN ETA HONDAKINEN ERABILERA ETA KUDEAKETA EGOKIA BULTZATU

HELBURUAK 2020 URTEARI BEGIRA	ERLAZIONATURIKO ADIERAZLEA
Kontabilizatu gabeko ur eskaria murriztu %35era iritsi arte (Gaur egungo balorea %44)	Banatutako ur osoarekiko kontrolatu/kontabilizatu gabeko ur bolumena (%)
Hondakinen bilketa selektiboa %26ra iritsi (Gaur egungo balorea %21)	Selektiboki bildutako hiri hondakinen % /urtean
Udal argiteriaren kontsumoan 90 Kwh/bizt/urtean balorera iritsi (Gaur egungo balorea 99 Kwh/bizt/urtean).	Kwh/bizt/urtean

LE.5. ARRISKUA ERA ARDURATSUAN KUDEATU, INGURUMEN KALITATEA HOBETU ETA KLIMA ALDAKETAREN BORROKAN AURRERA EGIN

HELBURUAK 2020. URTEARI BEGIRA	ERLAZIONATURIKO ADIERAZLEA
Udalerrian berotegi efektua duten isurketak ez gainditu. (Gaur egungo balorea 4,2 kgCO ₂ e/bizt/urtean.)	kgCO ₂ e/bizt/urteko udalerrian

LE.6. SARE LANA INDARTUZ INGURUAREKIN BAT EGITEN DUEN ETA TOKIKO ENPLEGUA BULTZATZEN DUEN EKONOMIA DIBERTSIFIKATUA ETA LEHIAKORRA GARATU

HELBURUAK 2020 URTEARI BEGIRA	ERLAZIONATURIKO ADIERAZLEA
Establezimendu kopurua erreferentzia urtearekiko mantendu (Gaur egungo balorea 2.388)	Establezimendu kopurua/1000 biztanleko(%)
Merkataritza azalera minorista erreferentzia urtearekiko mantendu. (Gaur egungo balorea:1,70 m ² /1000 biztanleko)	m ² /1000 biztanleko dagoen merkataritza azalera minoristaren eskaintza

LE.7. BIZTANLERIAREN ONGIZATEA, GIZARTERATZEA ETA OSASUNA SUSTATU.

HELBURUAK 2020. URTEARI BEGIRA	ERLAZIONATURIKO ADIERAZLEA
Laguntza Ekonomiko beharren dagoen erantzun maila mantendu (Gaur egungo balorea:%100).	Lagundutako eskarien kopurua/onartutako eskari guztien kopurua.

LE.8. DIBERTSIFIKATUA ETA PARTE-HARTZAILEA DEN KIROL ESKAINTZA ETA ESKAINTZA SOZIOKULTURALA ESKAINI.

HELBURUAK 2020. URTEARI BEGIRA	ERLAZIONATURIKO ADIERAZLEA
Torrezabal Kultur Etxeko sozioak %5eara handitu (Gaur egungo balorea: 316).	Sozioak diren pertsonen kopurua
Kirol instalakuntzetan abonatuta dauden pertsonen kopurua mantendu (Gaur egungo balorea:14.000)	Abonatutako pertsonen kopurua

8. Lerro estrategikoak, programak eta ekintzak (LPE)

LE.1. IRAUNKORTASUN BALOREETAN OINARRITUTAKO INFORMAZIO, SENTSIBILIZAZIO ETA KOMUNIKAZIO IRISPENA SUSTATZEN DUEN ETA PARTE-HARTZEA BIDERATZEN DUEN UDAL KUDEAKETA GARATU

Programa 1.1. Udaletxearen erabaki-hartze prozesuetan herritarren parte-hartzea txertatu.

- A.1.1.1 Parte-hartze Batzordeak gauzatutako Herritarren Parte-hartze plan bat diseinatu eta ezarri non udalaren parte-hartze eta komunikazio dinamiketan elkarleen eta eragile sozialen papera agertzen den.
- A.1.1.2 Iraunkortasun prozesuaren (Tokiko Agenda 21) planifikazio eta jarraipenarekin erlazionatutako herritarren parte-hartze ekintzen garapena.
- A.1.1.3 Gertakariak kudeatzen dituen eta udaleko web orrian txertatzen den sistema informatiko baten garapena. Sistema honek biztanleriak hautemandako gertakarien harrera baimenduko luke, dagokion udal zerbitzuetako arduradunek tramitatu eta erantzungo lukete, uneoro prozesuaren trazabilitatea bermatuz.

Programa 1.2. Iraunkortasunean hezkuntza, prestakuntza eta sentsibilizazioa, herritarren erantzukizuna eta parte-hartzea bultzatzeko.

- A.1.2.1 Iraunkortasunarekin erlazionatuta, sentsibilizazio ekintzak eta kanpainen diseinua eta gauzapena.
- A.1.2.2 Kontsumo iraunkorrako bat sustatzeko eragile ekonomiko eta sozialekin koordinatu.
- A.1.2.3 Hezkuntza zentroekin elkarlanean hezkuntza eta prestakuntza jarduerak.
- A.1.2.4 Ohiko nekazaritzako tekniken inguruko prestakuntza programen diseinua eta garapena.
- A.1.2.5 Herriko web orrian ingurumen informaziorako gune bat sortu non ingurumen kalitatezko datuen, adierazleen eta hauen bilakaeraren inguruko komunikaziorako mekanismo errazak eta zuzenak nahiz udala garatzen ari den proiektu eta ekintza garrantzitsuenen inguruko informazioa txertatzen den.

Programa 1.3. Gertuagokoa den eta informazioa bideratzen duen administrazio baten aldaketarako kudeaketa.

- A.1.3.1 Herritarrei zuzendutako arreta zerbitzu baten garapena.
- A.1.3.2 Herritarrei telematikoki zuzendutako arreta zerbitzuak handitu "on line" tramitazio eta gestioen mailakako ezarpen baten bitartez.
- A.1.3.3. Programazio bakarra duen Agenda gauzatu eta ezarri.

Programa 1.4. Euskararen sustapena eta normalizazioa

- A.1.4.1. Euskara Biziberritzeko Plana berrikusi eta plan berrian aurreikusten diren ekintza berriak garatu datozen urteetan.
- A.1.4.2. Euskararen Erabilera Plana berrikusi, identifikatutako oztopoak gainditzen lagunduko duten neurri berriak bilatuz.
- A.1.4.3. Euskararen ordenantza bat garatu, datozen urteetan garatu beharreko ekintzak planifikatuz.
- A.1.4.4. Euskararen erabilpen politiketan funtsezkoa izango den ludoteka sarea garatu gaur egungoak daudenak osatuz.
- A.1.4.5. Nerbioi-Ibaizabalgo ondare linguistiko, etnografiko eta kulturalaren web gunea bultzatu eta zabaldu

Programa 1.5. Generoaren ikuspegitik gizarte berdintsuago bat sustatu.

- A.1.5.1. Berdintasuneko Planean jasotako ekintzak garatu.
- A.1.5.2. Elkarte mugimenduan eta herritarren parte-hartze ekintzetan emakumeen parte-hartzea sustatu.
- A.1.5.3. Berdintasun Planaren garapenaren planifikazioa, koordinazioa eta jarraipenerako barne antolakuntza eta kudeaketa egiturak garatu.
- A.1.5.4. Emakumeen aurkako biolentzia kasuetan udal protokoloan ezarritako erakundeen arteko koordinazio neurriak garatu.

Programa 1.6. Udal kudeaketan barne koordinazioa eta zeharkakotasuna sustatu.

- A.1.6.1. Tokiko Agenda 21 prozesuko garapenaren planifikazioa, barne koordinazioa eta jarraipena egiteko mekanismoak diseinatu eta abian jarri.
- A.1.6.2. Barne koordinaziorako mekanismoak sortu udal kudeaketan zeharkakotasuna sustatzeko.
- A.1.6.3. Herritarren behar eta itxaropenetara egokitzeko prozedura administratiboak sinplifikatu.
- A.1.6.4. Udalez gaindiko esparruan, Udalen arteko koordinazio organoetan parte hartu.

LE.2. ESPAZIOAREN ERABILERA BALIOAK ARRISKUAN JARRI GABE BULTZATUKO DUEN HALA LURRALDEAREN NOLA NATURAREN ORDENAZIO ZEIN KUDEAKETA GARATU

Programa 2.1. Hiri inguruko eta periferiko paisaiako gune berdeak balioan jarri eta egokitu eta biztanleriarekin lotu.

- A.2.1.1. Interesa duten guneen identifikazioa, egokitzea eta herri-gune ezberdinekiko lotura proiektuak garatu (bide, oinez, bizikletaz, e.a.).

A.2.1.2 Biztanle guneak eta hauen artean oinezko eta bizikleta bidezko lotura sustatu eta aisialdirako eta kirola egiteko beharrezkoa den ekipamenduak jarriz, ibaiko erriberan gune berdeak garatu.

A.2.1.3 Aisialdirako ortu ekologikoen proiektu baten gauzapena eta exekuzioa.

Programa 2.2. Interes ekologikoa eta paisajistikoa duten guneak eta elementuak kontserbatu eta errekueratu.

A.2.2.1 Udalerriko natur ingurunea eta paisaia ezaugarritzen dituzten ikerketak burutu, interesa duten espazioak identifikatuz, garatu beharreko kontserbazio/berreskurapen ekintzak zehaztuz eta HAPOAN babes eta kontserbaziorako neurriak jarriz.

A.2.2.2 Hezeguneetako bioaniztasuna kontserbatzeko eta hobetzeko jarduerak garatu. (presak).

A.2.2.3 Ibaiko erribera berreskuratu eta mantentzeko ekintzak sustatu eta gauzatu.

A.2.2.4 Landaredi eta fauna inbaditzailea identifikatu eta kentzeko ekintzak garatu.

A.2.2.5 Bertako espezien ezarpena sustatu, publikoak diren mendietan nahiz aisialdirako guneetan konifero landaketak aldatuz.

A.2.2.6 Upoko aterpetxea balorean jarri udalerriko ingurune naturala ezagutzea errazten duen baliabide gisa.

Programa 2.3. HAPNaren garapenean merkatua arautzen duten lurzoru aukera berriak bilatu jarduera berriak erakarri eta/edo daudenak birkokatze.

A.2.3.1. Lurzoru aukerak bilatu eta identifikatu.

A.2.3.2. HAPNaren diseinu eta garapenean industri poligonoen optimizazio eta berreskuratze aukerak identifikatu.

A.2.3.3. Ospitalearekin erlazionatuta dauden jarduera sozio-sanitarioen ezarpenerako Labea Uraska ingurua garatu: osasunarekin erlazioa duten teknologia berrien garapena.

Programa 2.4. Hiri paisaia balioan jarri eta ondare kulturala babestu.

A.2.4.1. Kultur ondarearen inguruko ikerketak bultzatu eta ondarea biztanleriaren artean ezagutarazi.

A.2.4.2. Ondarea berriztatu eta balioan jarri (mendiko burdinolak, galtzada Erreala, Dorre Etxea, zubiak, burdin hesia, e.a.)

Programa 2.5. Herriko beharrak asetuko dituen, eraikita dagoen espazioari lehentasuna ematen dion eta kontserbazioa, hobekuntza eta erabilera eraginkorra bultzatuko duen etxebizitza politika bat garatu.

A.2.5.1. Etxebizitza berrien eskaintza sustatu gizarte beharrei erantzuna emanaz.

LE.3. BIZTANLERIAREN BEHARRAK ASETUKO DITUEN MUGIKORTASUN ERAGINKOR, LEHIAKOR, BIDEZKO, OSASUNGARRI ETA ZIURRA GARATU

Programa 3.1. Garraioaren ordenazioa eta lasaitzea eta bide sarearen hobekuntza.

- A.3.1.1 Altzadi plaza Autopistako pintxazo biribilgunearekin lotu
- A.3.1.2 Hirigunean trafikoa ordenatu.
- A.3.1.3 Euskadi, Muguru eta Zamakoa kaleetan trafikoa lasaitu.
- A.3.1.4. Hirigunean aparkalekua arautzeko sistemen ezarpena.
- A.3.1.5. Hirigunean aparkaleku gune berrien sorreraren bideragarritasuna aztertu
- A.3.1.6. Landa ibilbideen berreskuratze, mantentze eta seinaleztatze ekintzak.

Programa 3.2. Garraio publikoa hobetuz eta motorizatu gabeko garraio bideak bultzatuz mugikortasun gatatzak eta fluxuak konpondu.

- A.3.2.1 Galdakaoko herri-gunea denbora mugagabea amaierako geltoki bihurtu ez dadin saihesteko, Galdakaoko Ospitalea Usansoloraino doan Metroko linearen garapen urgentea sustatu
- A.3.2.2. HAPNan herritarrak metrora iristea faboratzen duten neurriak barneratu, geltokietara gertu dauden guneen birdentsifikazioa eta aukerarako lurzoruak bilatuz.
- A.3.2.3. Hiriguneko kaleen peatonalizazioarekin aurrera egiten jarraitu.
- A.3.2.4. Oinezkoen gune publikoak biztanleriaren topagune eta elkarbizitzarako gune bezala egokitu (plazak, haurren parkeak, e.a.)
- A.3.2.5. Bizikleta Sarearen Ibilbidea garatu herrian baita honen lotura Bizkaiko Bizikleta sarearekin ere.
- A.3.2.6. Bizikletaren erabilera garraio bide bezala sustatu.
- A.3.2.7. Herriko komertzioetan bizikleta elektrikoak hartu daitezela sustatu.

Programa 3.3. Gune publiko eta uda eraikinen irisgarritasuna hobetu.

- A.3.3.1. Udal eraikinetan Irisgarritasun Plana osatu.
- A.3.3.2. N-634an itsuentzako semaforoaren egokitzapena sustatu.
- A.3.3.3. Malda handietan irisgarritasuna hobetzeko eta gauzapean ekintzen inguruko bideragarritasuna aztertu.

Programa 3.4. Mugikortasun jasangarria eta bide segurtasunean hezi.

- A.3.4.1. Konpartitutako bizikleta ibilbideen erabilera segurua eta arduratsuaren inguruan bide publiko horretako erabiltzaile guztiak sentsibilizatu.
- A.3.4.2. Biztanleria mugikortasun jasangarrian eta ibilgailu pribatuaren erabilera arduratsuan sentsibilizatu.

LE.4 BIZIMODU ARDURATSUAK SUSTATU ETA ONDASUN NATURAL KOMUNEN ETA HONDAKINEN ERABILERA ETA KUDEAKETA EGOKIA BULTZATU

Programa 4.1. Uraren ziklo osoa hobetu, ura biltzen duen hartuneetatik hasiz ibaira itzultzen den puntuetaraino

- A.4.1.1 Kontabilizatu gabeko kontsumoak kontrolatu eta ur galerak murrizteko ekintzak.
- A.4.1.2 Partzuergoarekin elkarlanean periferiako guneak eta landa-guneak saneamendu sarera irits daitezen lan egiten jarraitu.
- A.4.1.3 Partzuergoarekin elkarlanean kontrolik gabeko isurketa puntuak identifikatu eta kolektorera lotzeko neurriak hartu.

Programa 4.2. Energia aurreztea eta hala eraginkortasunaren nola energia berriztagarrien sustapena egin

- A.4.2.1 Udal instalakuntza eta eraikinetan auditoria energetikoak egin eta hauetan eraginkortasun energetikorako neurriak garatu.
- A.4.2.2 Teknikoki gomendagarria den kasuetan udal flota aldatzerakoan ibilgailu elektriko edo hibridoak erosi.
- A.4.2.3 Ibilgailu pribatuen erabilera partekatua sustatu.

Programa 4.3. Hondakinen murriztea, berrerabilpena, birziklapena eta balorizazioa

- A.4.3.1 Errefortzu ekintzak eta hondakinen bilketa selektiboaren bilketa handitu.
- A.4.3.2. Bilketa pneumatikoaren III. Fasea garatu.
- A.4.3.3. Hondakin organikoen bilketa selektiboa bultzatu baita bakarkako eta taldekako konpostajea ere.
- A.4.3.4. Jabeak txakurren gorotzen inguruan sentsibilizatu, guneak jarri eta hauek seinalezatu.

LE.5. ARRISKUA ERA ARDURATSUAN KUDEATU, INGURUMEN KALITATEA HOBETU ETA KLIMA ALDAKETAREN BORROKAN AURRERA EGIN

Programa 5.1. Arriskuaren eta ekonomi jardueren kudeaketa hobekuntza eta eraginkortasuna

- A.5.1.1 Udalerriko Larrialdietarako eta Babes Zibilerako Plana egokitu eta udal eraikuntzen auto-babeserako Planak amaitu.
- A.5.1.2 Ehun ekonomikoan ingurumen aldagaia txertatzeko sustapena egin; bere kasuan, dagozkien baldintza legalak betetzen direla kontrolatu eta exijitu.

Programa 5.2. Udalaren jardueretan ingurumen irizpideak txertatu.

- A.5.2.1 Erosketa eta kontratazio publiko berderako estrategia bat diseinatu eta ezarri.
- A.5.2.2 Udal jardueren garapenean iraunkortasun eta praktika egokien inguruko irizpideak zehaztu eta ezarri.

Programa 5.3. Ingurumen kalitatea hobetu, kutsadura murriztu eta klima aldaketaren aurkako borroka.

- A.5.3.1. Airearen kalitatearen inguruko informazioa eduki eta biztanlerian zabaldu.
- A.5.3.2. Potentzialki kutsatuta dauden eta publikoak diren lurzoruen arriskua gutxitzeko ekintzak garatu.
- A.5.3.3. Klima aldaketaren inguruan herritarrei zuzendutako sentsibilizazio eta erantzukidetasun ekintzak garatu.

LE.6. SARE LANA INDARTUZ INGURUAREKIN BAT EGITEN DUEN ETA TOKIKO ENPLEGUA BULTZATZEN DUEN EKONOMIA DIBERTSIFIKATUA ETA LEHIAKORRA GARATU

Programa 6.1. Lehen sektorearen lehiakortasuna sustatu eta nekazaritzako eta baso lurren erabilera eraginkorra bultzatu.

- A.6.1.1 Lehen sektorean jarduera ekonomikoak garatu ahal izateko eskuragarria izan liteken udal lurzorua identifikatu, honen erabilera posibleak eta Gorbealderekin batera lur hauek sustatzaile posibleen eskura jartzeko bideragarritasuna aztertuz.
- A.6.1.2 Bertako produktuen kontsumorako ekintzen sustapena inguruko landa izaera duten udalerriekin elkarlanean.

Programa 6.2. Galdakao–Usansoloko ospitalearen potentzialitatea aprobetxatuz arlo sozio–sanitarioan oinarritzen den garapen ekonomikorako gune bat sortu.

- A.6.2.1 Sektorean prestakuntza profesionaleko hezkuntza proiektu bat garatu.
- A.6.2.2 Giza–osasu sektorearekin erlazionaturiko produktu eta zerbitzuen garapenerako jarduera ekonomikoak bultzatu.

Programa 6.3. Herriko merkataritza eta ostalaritza jarduerak bultzatu, aberastasun iturri bezala.

- A.6.3.1 Metroa iritsi behar dela aprobetxatuz, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen inguruko hausnarketa estrategikoa gauzatu.
- A.6.3.2 Merkataritza-ostalaritza jarduera dinamizatu.
- A.6.3.3. Merkataritza sustatzeko jarduera berritzaileak garatu.
- A.6.3.4. Sektorearen profesionalizazioa handitzeko eta teknologia berriak erabiltzeko Elkartegintza eta lana bultzatzeko ekintzak.
- A.6.3.5. Egokia den merkataritza lokal eskaintza baten bitartez etxebizitza inguruan erreferentzia markak erakarri.
- A.6.3.6. Merkatori elkartarekin elkarlanean hirigunean garatu beharreko jarduera lerroak eta proposamenen zehaztapenean aurrera egin.

Programa 6.4. Ekintzaileak sustatu eta lagundu

- A.6.4.1 Ekintzaileei zuzendutako laguntza teknikoa, prestakuntza eta jarraipena areagotu.
- A.6.4.2 Ekintzaile berrien jarduerak abian jartzeko hazitegi bat sortu eta lokalak bilatu.

Programa 6.5. Enpleguaren sustapena

- A.6.5.1 Eragile ezberdinen arteko kooperazio jarduera jarraituak bultzatu: administrazioak, enpresak, hezkuntza zentroak, biztanleria.
- A.6.5.2 Amorebieta eta Arratiako herriein elkarlanean enplegurako Eskualdeko Plana garatu.

LE.7. BIZTANLERIAREN ONGIZATEA, GIZARTERATZEA ETA OSASUNA SUSTATU.

Programa 7.1. Gizarte zerbitzuen planifikazioa eta kudeaketa

- A.7.1.1 Onartzeko dagoen gizarte zerbitzuetako katalogo eta maparekin (Etxebarri eta Basaurin enkoadratuak), lege berriaren erregelamenduen garapenera egokitu.
- A.7.1.2 Programa informatikoa Gizarte Ekintzako aplikazio berrietara egokitu (giza diagnostikoa, dependentzia, gizarte zerbitzuetako informazio sistema, larrialdietarako laguntzak, e.a.). Laguntza teknikoa honen ezarpena eta mantentzerako.
- A.7.1.3. Udaleko gizarte zerbitzuetako katalogoa ezagutzera eman.

Programa 7.2. Baztertzea saihestu eta barneratzea sustatu.

- A.7.2.1 Dauden beharren arabera Laguntza Ekonomikoetarako aurrekontua egokitu (Larrialdietarako Laguntzak, bakarkako laguntza sozialak...)

A.7.2.2 Talde behartuak lan munduan sar daitezen programak eta ikastaroak garatu.

Programa 7.3. Zahartze aktiboa bultzatu.

A.7.3.1 Pertsona adinduen arabera aire librean dauden gunek eta gunek berdeak birplanteatu (ekipamendua eta dinamizazioa).

A.7.3.2 Hezkuntza zentroekin eta giza eragileekin elkarlanean belaunaldien arteko gaiak jorratu.

Programa 7.4. Ondo bizitzeko ingurua eta bizi ohitura osasungarriak bultzatu

A.7.4.1 Gizarte ekintza eta osasun zerbitzuen koordinazioaren bitartez hezkuntza ekintzak.

A.7.4.2. Drogen kontsumoarekin lotura duten arriskuen prebentzio eta murrizte programak garatu.

Programa 7.5. Elkartasun giroa bultzatu herrian.

A.7.5.1 Aurrekontuaren parte bat nazioen arteko elkartasun ekintzetara bideratu.

A.7.5.2 Galdakaon garapenerako kooperazio elkarteak (ONGak) sortzeko baldintzak bideratu.

LE.8. DIBERTSIFIKATUA ETA PARTE-HARTZAILEA DEN KIROL ESKAINTZA ETA ESKAINTZA SOZIOKULTURALA ESKAINI.

Programa 8.1. Gazteekiko komunikazioa hobetu eta aisialdirako ekintzen diseinuan eta garapenean hauen parte-hartzea bultzatu.

A.8.1.1 Web 2.0 lanabesen bidez komunikazio interaktibo kanalak garatu.

A.8.1.2 Lonjetako gazteak aisialdirako eskaintza baten diseinuan eta garapenean sartu.

A.8.1.3. Gazte ekipamenduak garatu eta hauen eskaintza eta kudeaketa eredua zehaztu.

Programa 8.2. Kultura eskaintza erakargarria eta parte-hartzailea.

A.8.2.1 Lokal publikoen egokitzapen/modernizazio/errestrukturazio Plan bat egin eta elkarteei lokalak uzteko arautzen duen ordenantza bat egin.

A.8.2.2 Torrezabaleko erabilerak eta gunek birdiseinatu eta birrekipatu gaur egungo beharretara egokitu daitezten.

Programa 8.3. Kirol eskaintza hobetu eta baita herritarren parte-hartzea kirol ekintzetan ere.

A.8.3.1 Irigarritasun unibertsala bermatzen duten eta dohainik diren hiriko kirol-gunek sortu (skate, urban basket, ...)

A.8.3.2 Kirol instalakuntzen zabaltzea eta garapena balio-aniztasuna bilatuz.

A.8.3.3. Kirol elkarteekin elkarlanean aire libreko kirol ekintzak programatu.

JARRAIPEN PLANA


1. Jarraipen Planaren Xedea

Iraunkortasunerako **Tokiko Ekintza Planaren ezarpenerako monitorizazio lanabesen zehaztapena** egitea du helburu Jarraipen Planak, proposamenen betetze maila eta hauen eraginkortasuna ebaluatuz, baita adierazleen kalkulua ere.

Horren bitartez, Ekintza Plana inguruabar eta egoera berrietara egokitzen joan daiteke, herriaren testuinguru sozioekonomiko eta ingurumenekoaren bilakaerara egokituz.

2. Jarraipen Planeko Operazioak

Ekintza Plana kudeaketarako erabateko tresna eraginkor moduan erabili ahal izateko, Udalsarea 21etik (Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea) aldizkako **hainbat aplikazio prozesuren integrazioa** sustatzen da, horien artean Tokiko Agenda 21 kudeatzeko eredu egokia sortuz.



TA21en Ekintza Planaren urteko kudeaketaren zikloa

Iturria: "Euskadiko udaletan Tokiko Agenda 21en ekintza planen urteko Programaziorako eta Ebaluaziorako Gida Metodologikoa". Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila 60.zk. 2006ko Urria. Ihobe.

Horrela, Ekintza Planaren urteroko kudeaketa ezartzeak, urtero iraunkortasun helburuen (iraunkortasun adierazleak) lorpenaren eboluzioa eta Tokiko Agenda 21ean burututako jarduerak (Planaren exekuzioaren ebaluaketa) baloratu eta komunikatzeko aukera ematen du, baita hurrengo urtean garatuko diren jarduerak zeintzuk izango diren erabakitzea (Planaren urteroko programazioa), ahal den neurrian udal aurrekontuei lotuta.

OPERAZIOA ¹	DESKRIBAPENA	HELBURUA
TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN ADIERAZLEEN KALKULUA (TIA)	Euskadiko tokiko iraunkortasunaren adierazleen sistemaren urteroko kalkulua Tokiko Agenda 21en ebaluazio eta jarraipen programaren esparruan, MUGI 21 aplikazio informatikoa erabiliz.	TIA-en kalkuluak ondorengoa ahalbidetzen du: <ul style="list-style-type: none"> - Udalerrriaren egoera eta joerak ezagutu eta ebaluatzea. - Urtean zehar burutu diren ekintzen emaitzak ebaluatzea. - Biztanleriari udalerriko garapen jasagarriaren egoera, joera eta garapen mailaren berri ematea modu argi eta errazean.
BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN (BEG) INBENTARIOAREN KALKULUA	Berotegi-efektuko gasen Inbentarioaren kalkulua.	BEG-en isurketen Inbentarioaren kalkuluak ondorengoa ahalbidetzen du: <ul style="list-style-type: none"> - Toki-administrazioko jardueraren ondorioz erregai eta elektrizitatearen kontsumoari eta garraioari dagokien isurketen banaketa ezagutzea. - Udalerriri zuzenki loturiko jardueren isurketak ezagutzea.
TOKIKO EKINTZA PLANAREN (TEP) BETETZE MAILAREN EBALUAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> - Metodologia estandarizatuaren eta MUGI 21en aplikazio informatikoaren bitartez ekintza Planak gauzatuak mailaren urteroko balorazioa eta analisisa da. - Ekintza bakoitzaren exekuzio mailaren ebaluazioak horiek euren garapen egoeraren arabera sailkatzea ahalbidetzen du. Hortik abiatuz, Planaren ezarpen globalaren maila kalkulatu da. - Zenbait aldagairen arabera (lehentasuna, gaiak, tipologia) exekuzio adierazgarriak ere ateratzen dira; udalaren analisi ebolutiboa egiten eta hori beste prozesu batzuekin konparatzen uzten du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Eraginkortasun handiagoa lortzearren, erabakiak hartzeko eta Planaren udal kudeaketaren orientazioa gauzatzeko informazio baliotsua eskaintzen du. - TEP-aren exekuzio mailaren ikuspegi orokorra eskaintzen du. - Informazioa biltzen du: programatu gabe egonik, ekintza edo helburuen garapenean laguntzen duten ekintzak sartzea ahalbidetzen du. - Hobekuntzak proposatzeko zailtasunak aurkezten dituzten atalak antzematea ahalbidetzen du. - Inplikaturik dauden agente ezberdinei -politikoak, teknikoak, herritarrek- Tokiko Agenda 21en garapena komunikatzeko eta ezagutarazteko datu zehatzak eskaintzen ditu.
EMAITZAK JAKINARAZTEA	Behin iraunkortasunaren adierazgarrien eta BEG-en kalkulua eta ezarpen mailaren ebaluazio prozesua bukatu eta gero, lortutako emaitzak Tokiko Agenda 21-i lotutako aktore taldeari komunikatzea beharrezkoa da: <ul style="list-style-type: none"> - planean inplikaturikotako eragile teknikoei - gobernu taldeko kideei zein herritarrei - herritar zein gizarte eta ekonomi eragileei 	Barne komunikazioaren bitartez: <ul style="list-style-type: none"> - Barnean dauden udaletako teknikariek Ekintza Plana barneratzen dutela sustatzea, xedea izanik hauek Planaren ekintzak beren jardueran txertatzea eta barne komunikazio eta koordinazioa indartzea. Kanpo komunikazioaren bitartez: <ul style="list-style-type: none"> - Udalak iraunkortasunaren alde egiten duena herritarrei aldizka komunikatzen laguntzea, egiaztatutako informazioan oinarriturik. - Herritarren parte-hartze organoak finkatzen laguntzea Planaren exekuzioaren jarraipenaren eta ondorengo programazioaren bitartez.

¹ Ekintza guztiek urteroko aldizkakotasuna dute, Ekintza Planaren Berrikuspenak salbu, zeinak 8 urte bitarteko maiztasuna duen.

OPERAZIOA ¹	DESKRIBAPENA	HELBURUA
TOKIKO AGENDA 21AREN KALITATEAREN NEURKETA (tak 21)	<ul style="list-style-type: none"> - tak 21 Euskadiko Tokiko Agenda 21en kalitate orokorra neurtzeko eta ezagutzeko sistema da. 5 ezaugarriren balorazioen bitartez definitzen da: ezaugarri estrategikoak, zeharkakoak, parte-hartzaileak, operatiboak eta jasangarritasunekoak. - Udalsarea 21ek sustatutako Auditoretza sistema bat da, eta Sarean dauden udalerrien Tokiko Agenda 21eko prozesuen kudeaketa modeloaren parte da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Herritarren parte-hartzea sustatzea jardueren urteko programazioaren prozesuan herritarrak integratuz. <p>Ondorengoa ahalbidetzen du:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bidezko diagnostiko baten bidez Tokiko Agenda 21en plangintza hobetzea. - Udalerrian hoberen dauden alderdiak eta hobetu daitezkeenak antzematea.
EKINTZEN PROGRAMAKETA	<p>Hurrengo urtean Ekintza Planaren ezarpenean lagunduko duten egin beharreko jarduerak definitzea; erreferentzia moduan Planari dagokion urterako planifikatutako ekintzak eta ebaluaziotik jasotako emaitzak hartuko dira.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ekintza Planaren hainbat urtetako planifikazioa udal aurrekontuari eta barnean dauden udal-zerbitzuen kudeaketari lotzea. - Planaren exekuzioa jarduteko beharren eboluziora eta eskura dauden giza baliabideetara eta baliabide ekonomikoetara modu egokiagoan doitzea. - Planari lotutako proiektu eta jarduerak formulatzea hurrengo urtean zehar udalaz gaindiko finantzazioaren bilketara bideratuta daudenak.. - Tokiko Agenda 2 prozesua udal teknikarien multzo osoaren aurrean ikusgarriagoa egingo duten eta haiengandik hurbilago kokatuko duten hurbileko denbora-mugarriak eskura izatea.
EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA	<p>Aurrekoa ordeztuko duen hainbat urteko Ekintza Plan berria lantzea.</p>	<p>Ondorengoa ahalbidetzen du:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Planaren helburu zein ekintzak iraunkortasunari loturiko arloen eboluzio juridiko, tekniko, ekonomiko eta sozialera egokitzea. - Gaikako esparruen arabera, Planaren jardueren ezarpen mailara doitzea. - Udalerrriaren ingurumen eta gizarte eboluziora moldatzea.

3. MUGI 21 Planaren kudeaketan tresna lagungarri moduan

MUGI 21 Udalsarea 21eko udal-kideentzat neurrira diseinatutako eta garatutako **aplikazio informatikoa** da. Tokiko Agenda 21en kudeaketa eta jarraipen prozesu garrantzitsuenen kudeaketa integratua errazten du, alegia, Planaren ebaluazioa, adierazleen kalkulua, ekintzen programazioa eta Planaren azterketa (planifikazioa).

Badaude, gainera, bestelako tresna batzuk, hala nola, Tokiko Jasangarritasun Adierazleen kalkulurako Metodologia, tak21 aplikazio informatikoa edo Tokiko Ekintza Planen Ebaluazio eta Jarraipen Plana besteak beste, kudeaketa eredu honen lanen garapenean laguntzen dutenak.

4. Nork hartzen du parte Planaren kudeaketan?

Ekintza Planaren kudeaketa prozesuan beharrezkoa da ondorengo konpromisoa:

IRUDIA	DEFINIZIOA	ROLA
PROZESUAREN KOORDINATZAILEA ESKUALDE MAILAN	Tokiko Agenda 21en kudeaketara lotutako UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko arduradun teknikoa.	<ul style="list-style-type: none"> • Prozesu osoa erraztea eta sustatzea. • Prozesuan inplikaturako eragile multzoarekiko komunikazioa, laguntza eta jarraipena. • MUGI 21en inguruko dokumentu eta informazio kudeaketa. • Programazio txostena egitea. • Udalsarea 21ekin eta kanpoko ebaluatzailearekin komunikatzea. • Eraitzen txostenaren tratamendua eta lantze prozesua.
PROZESUAREN KOORDINATZAILEA UDAL MAILAN	Tokiko Agenda 21en kudeaketara lotutako Udaleko arduradun teknikoa.	<ul style="list-style-type: none"> • UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko koordinatzaileari laguntza ematea. • UT21 Nerbioi-Ibaizabali datuak eta informazioa emateko barne koordinazioa.
INPLIKATURAKO ERAGILEAK	Udal, udal enpresa, UT21 Nerbioi-Ibaizabal zein udal eskuduntzak beren gain dauzkaten eskualdeko beste entitateetako o teknikari edo hautetsiak, Ekintza Planaren buruketan inplikaturikoak.	<ul style="list-style-type: none"> • Buruturiko Ekintza Planari loturiko jarduera guztien identifikazioa. • Integratutako eta ebaluatutako jardueren ondorengo balidazioa. • Planera lotuta egin beharreko jardueren formulazioa eta dagokion kostua.
EBALUATZAILEA	Prozesua ebaluatzeko propio esleitutako pertsonal teknikoa, lan hori burutzeko gaitasun bereziak izan behar dituenak. Rol hau UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko pertsonal tekniko batek bete dezake, baina hobe da Udaletik kanpoko eragile batek egitea.	<ul style="list-style-type: none"> • Prozesuaren koordinatzaileari metodologi laguntza ematea. • Prozesuaren hasierako aurkezpenari eta eragileei irizpideak emango dizkien prozesu bukaerari laguntza ematea. • Metodologi gidan ezarritako irizpideen arabera ekintzen exekuzio mailaren ebaluazioa. • Prozesuaren kalitatearen kontrola eta metodologi irizpideen gutxiengoa betetzearen balidazioa. Beharrezkoa izanez gero, koordinatzaileari laguntza ematea.

5. Jarraipenerako Ereduaren proposamena

Jarraian Udaleko nahiz eskualdeko kudeaketa organoen eta partaidetza organoen bitartez prozesuaren jarraipena egin ahal izateko eredu bat aurkezten da.

Barne Partaidetza:

Prozesuaren jarraipena hainbat mailatan burutuko da:

Maila	Organoa	Izaera	Funtzioak	Periodikotasuna
Udalekoa	Hirigintzako batzordea	Politikoa	Informazioa, jarraipena eta parte-hartzea herri mailan	Gutxienez 2 bilera urtean
Eskualdekoa	UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko Udaltalde Batzordea	Mistoa (UT21 Nerbioi Ibaizaleko kide diren udaletako udal arduradun eta arduradun politiko eta tekniko integratua)	Informazioa, jarraipena eta parte-hartzea eskualde mailan	Gutxienez 2 bilera urtean

Bi organoak Tokiko Agenda 21en garapen eta jarraipen prozesuak eskatzen duen maiztasunarekin deituko dira bilerara. Ezarritako helburuak betetzearren, komenigarria litzateke organo bakoitzarekin **gutxienez urtean bitan elkartzea**.

Kanpo Partaidetza:

Herritarren parte-hartze eta jarraipena hainbat metodoren bitartez burutu daiteke, parte-hartzea bultzatzen duten foro edo tailerrak antolatuz, esaterako. Parte-hartze eta jarraipen hori egin diren Lantalde eta batzordeen eta urteko programazioaren araberakoa izango da. Gutxienez urtean behin egingo da.

Kanpo partaidetza izan daiteke:

- Tokiko Agenda 21en prozesuari berari lotua: Tokiko Agenda 21en jarraipen, ebaluaketa eta programazioa ahalbidetzen duten herritarren parte-hartzeko mekanismoak.
- Sektoriala edo gaikakoa: herritarren parte-hartzeko mekanismoak, adibidez, mugikortasun foroak, airearen kalitatea, biodibertsitatea, Udala-enpresa, parte-hartzeko estrategiak diseinatze prozesuetan zentratutako bilerak, etab.